

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Deialdia eta oinarri arauak, Erriberabeitiko kontzejuei dirulaguntzak emateko, herriko jaietako gastuen, inbertsio obren eta hainbat gastu arrunten finantzaketarako

Erriberabeitiko Udalak, 2016ko irailaren 22an egindako ohiko bilkuran, deialdia eta oinarri arauak onartu zituen Erriberabeitiko kontzejuei dirulaguntzak emateko, herriko jaietako gastuen, inbertsio obren eta hainbat gastu arrunten finantzaketarako.

Bat etorri azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 52.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira, denek jakin ditzaten.

Dirulaguntzen oinarri arauak, Erriberabeitiko kontzejuei dirulaguntzak emateko, herriko jaietako gastuen, inbertsio obren eta hainbat gastu arrunten finantzaketarako

1. Deialdiaren xedea

1.1. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen xedea da ordaintzen laguntzea kontzejuek 2016. urtean kontzeptu hauengatik gauzatu edo sustatu dituzten obren eta jardueren ondoriozko gastuak:

- a) Herri bakoitzean diren oinarrizko zerbitzu publikoak konpontzeko eta onik zaintzeko obrak.
- b) Erriberabeitiko udalaren kontzejuen titularitateko ekipamenduak berritzeko obrak.
- c) Erriberabeitiko udalerriko herrietako jaiak.
- d) Zerbitzu publikoak mantentzeko eta onik zaintzeko gastuak.

1.2. Deialdi honen kariaz ematen diren dirulaguntzak honako aurrekontu partida hauei egotziko zaizkie:

- Herriko jaiak: 2016 338.434010, Erriberabeitiko udalaren aurrekontu orokorra.
- Obrak: 2016 943.734010, Erriberabeitiko udalaren aurrekontu orokorra.
- Zerbitzuak: 2016 943.434010, Erriberabeitiko udalaren aurrekontu orokorra.

2. Erakunde onuradunak

2.1. Erriberabeitiko udalerriko kontzejuek bakarrik izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun.

2.2. Ez zaie ordainduko dirulaguntza udal honek emandako dirulaguntza bat justifikatzeko daukaten kontzejuei edo dirua itzultzeko prozedurak edo udalarekiko zorrak kitatzeko daukaten kontzejuei.

2.3. Ez zaie ordainduko dirulaguntza dagokion obra lizentzia ez daukaten kontzejuei edo alde zuzeneko komunikazioa egin ez duten kontzejuei eta, hala badagokio, lehen erabilerako lizentzia ez daukatenei.

2.4. Fakturak datu hauetakoren bat falta badu, gastuak ez dira ordainduko: fakturaren zenbakia; faktura egin zeneko data; izen-abizenak; sozietatearen egoitza edo helbide osoa, hala faktura eman behar duenarena nola operazioen hartzailearena; zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia; operazioen deskripzioa, balio erantsiaren gaineko zergaren oinarria determinatzeko behar diren datu guztiak adieraziz; operazioei aplikatzekoa zaien zerga tasa (edo,

hala balegokio, zerga tasak); hala balegokio, zerga kuota jasanarazia, bereiz adierazi beharrekoa; dokumentatzen diren operazioak egin direneko data edo, hala balegokio, ordainketa aurreratua jaso denekoa, betiere faktura eman zenekoaz bestekoa bada.

Erriberabeitiko udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuz, salbuetsirik daude zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatetik toki erakunde txikiak, erakunde publikoak direlako.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

3.1. Ez dira diruz lagunduko honako obra hauek:

3.1.1. Oro har, Erriberabeitiko udalerriko kontzejuen titularitateko ekipamenduak berritzeko obren kontrata edo gauzatzeari dagozkion gauzatze kostuak (berritze obra horiek 2016an egin badira eta, betiere, 2016ko abenduaren 31 baino lehen amaitu badira, eta, betiere, ekipamenduen egoera hobetzeko, oinarrizko ekipamenduz hornitzeko eta 20/1997 Legeari eta hura garatzen duen 68/2000 Dekretuari egokitzeko egin badira, alegia, irisgarritasuna sustatzeko Legeari egokitzeko). Zehazki esanda, honako obra hauek:

3.1.1.a) Berritze obrak kontzejuen titulartasuneko ekipamendu publikoetan:

- Kanpoko eta barruko margotze lanak.
- Teilatuak zaharberritzeko obrak
- Eraikuntzen barrua birgaitu eta berritzeko obrak, barruko antolaera aldatzekoak barne.
- Irisgarritasuna hobetzeko obrak, hala kanpoaldeko irisgarritasuna nola barrukoa.
- Berokuntza jartzeko beharrezko obrak.
- Obrak parke, lorategi eta bide publikoetan
- Hiri altzarien konponketak eta hausturek eragindako lanak.

3.1.1.b) Dauden oinarrizko zerbitzu publikoak konpontzeko eta onik zaintzeko obrak.

3.1.2. Ez dira diruz lagunduko honako obra hauek:

— Deialdi honen xede diren obren gastuak, berariazko hitzarmen batean sarturik dirulaguntza jaso badute.

— BEZari dagozkion gastuak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal direnen barnean badaude. Kontzejuak ez badauka BEZa aitortzeko obligaziorik, haren jarduera ez dagoelako BEZaren pean, BEZari dagozkion gastuak ordainduko dira.

3.2. Jaiak

3.2.1. Oro har, diruz laguntzekoak izango dira herriko jaietan egindako jarduerak, hala nola:

- Kontzertuak edo dantzaldiak
- Kultura ikuskizunak
- Kirol ikuskizunak edo jarduerak
- Haurrentzako jarduerak
- Su artifizialak
- Emandako trofeoak eta sariak.

3.2.2. Ezingo dira diruz lagundu jatetxe eta lunchetako gastuak eta gizarte etxe eta leku publikoetarako janari-edarien gastuak eta antzekoak. Petardoak ere ez.

3.3. Zerbitzu publikoak mantentzeko gastu arruntak.

3.3.1. Oro har, diruz lagunduko dira honako zerbitzu publiko hauek mantentzeko gastuak:

- Herriko gizarte etxea argindarrez hornitzea.
- Kontzejuen eskumeneko herriguneko kaleen garbiketa (espaloiak eta kontzejuaren eraikinak garbitzea).
- Putzu septikoak eta araztegi publikoak onik zaintzeko gastuak.
- Eraikin publikoetako igogailu eta/edo jasogailuak mantentzeko gastuak, irisgarritasun arauak tarteko.

3.2.2. Zerrendatu eta justifikatutako 2016ko gastuak lagunduko dira diruz.

4. Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin

Deialdi honetan jasotako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede horretarako bererako emandako beste batzuekin, betiere gainfinantzaketarik eragiten ez badute. Halakorik gertatzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, indarreko legerian ezarritako eran.

5. Informazioa eta aholkularitza

Udal bulegoetan eskura daitezke.

6. Eskaerak eta agiriak

Toki erakunde txikiek, deialdi honetako dirulaguntzak nahi badituzte, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte 7.2 oinarrian ezarritako epean:

6.1. Eskaera, deialdi honetako inprimakia betez; udalean edukiko dute eskura, kontzejuko presidentek sinaturik edo zer ordezkariarekin jarduten duen egiaztatzen duen pertsonak sinaturik (ordezkari horren egiaztapena ere aurkeztu beharko dute, bai eta ordezkariaren NANaren kopia ere).

6.2. Toki erakunde txikiaren kontuak, 2015ekoak.

6.3. Aurrekontua, eta, hala balegokio, dirulaguntzaren xede diren obren proiektua.

6.4. Gastuen justifikazioa, 12.4 oinarrian araututakoaren arabera.

6.5. Erantzukizunpeko adierazpena, IV. eranskinaren arabera (udalean dago eskuragarri), erakundeko ordezkariarena, ziurtatzen duena erakundea ez dagoela sartuta onuradun izatea galarazten duten kausetako batean ere.

6.6. Erakundeak xede horretarako bererako jaso edo eskatu dituen dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideen zerrenda zehatza, adieraziz zenbatekoa eta nork emana den.

– Erriberabeitiko Udalak aukeran izango du beste agiri batzuk aurkezteko eskatzea, aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpenei buruz hobeto erabakitzeko.

7. Eskabideak izapidetzea

7.1. Agiri guztiak jatorrizkoan formalizatuko dira, eta Erriberabeitiko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira.

Eskabideak, halaber, 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta prozedura erkidearenak, 38.4 artikuluan aipatzen dituen bideetakoren bat baliatuz aurkeztu ahal izango dira.

7.2. eskabideak aurkezteko epea 2016ko urriaren 31n amaituko da.

8. Aurkeztutako agirien akatsak zuzentzea

Baldin eskaerak ez baditu betetzen deialdiaren arauan ezarritako betebeharrak, organo eskudunak erakunde interesatuari eskatuko dio zuzen dezala akatsa, eta gehienez ere 10 egun naturaleko epe luzaezina emango dio horretarako, eta adieraziko dio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egintzat joko dela, betiere, alde aurretik ebazpena eman ez, zeina 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta prozedura erkidearenak, 71. artikuluan ezarritako baldintzak betez eman beharko baita.

9. Dirulaguntzak emateko irizpideak

9.1. Erriberabeitiko Udalak irizpide hauek edukiko ditu kontuan, toki erakunde eskatzaileei dirulaguntzak eman edo ukatzeko edo nori eman erabakitzeke orduan lehentasunak ezartzeko:

- a) Eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak egiaztatzea.
- b) Eskabideak 1. deialdi honen oinarriaren 1.1. idatz zatian eta 3. oinarrian ezarritakoari egokituko zaizkio.
- c) Faktura behar bezala egiaztatuaren bidez justifikatzea 2016. urtean gertatu diren gastuak, deialdi honen xede direnak, edo, eskaera aurkezteko orduan ez badira obrak amaitu, kontratuen/gauzatzearen bidezko gauzatze-aurrekontua aurkeztea, 6. oinarriaren arabera adostua.
- d) Dirulaguntza jasotzen duen erakundea dagozkion egiaztapenak egitearen mende jartzea, indarrean den araudian ezarritako baldintzen arabera.

9.2. Erriberabeitiko Udalak, dirulaguntza emateko erabakiaren barnean, honako hauek zehaztuko ditu:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.
- b) Dirulaguntzaren izaera eta zer baldintzarekin ematen den.
- c) Ezarri ahal diren kontrol neurrien izaera eta kontrol neurri horiek zenbatean behin ezarriko diren.

9.3. Kontzeju bakoitzari dagokion zenbatekoa honela finkatuko da:

- a) Diruz laguntzekoak diren xedeen artean, deialdira aurkeztu diren toki erakunde txikien xedeetako bakoitzaren gastu justifikatuei dagozkien zenbateko guztiak batuko dira.

Gizarte etheen argiteria zerbitzuaren eta putzu septiko eta/edo araztegien kasuan, kendu egingo da kalkulu horretatik toki erakunde bakoitzak Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren 2016ko partaidetza aurreikusitak jasotakoa, bai eta zerbitzua finantzatzen duten diru sarrerak eta zerbitzu tasak ere.

b) Toki erakunde bakoitzari aurreko paragrafoan adierazitako zenbateko guztirakoan zer partizipazio ehuneko dagokion determinatuko da.

c) Horrela ateratzen den ehunekoa (b. paragrafoa) izango da toki erakunde bakoitzak 11.1 oinarrian ezarritako dirulaguntza kreditu gehienezkoan izango duen ehunekoa; nolana ere, 11.2. oinarrian ezarritakoa izango da gehienezko muga, alegia, gastu justifikatuen ehuneko laurogeita hamabost.

d) Dirulaguntzak banatzeko orduan haborokinik geratuz gero, hasierako esleipenerako baliatutako baldintza berberekin banatuko da.

10. Kide anitzeko organoa. Deialdia ebaztea

10.1 Alkateak ebatziko du ebazpena, dagokion teknikoak alde aurreko balorazio txostena egin ondoren.

10.2. Erabakia arrazoitu egin beharko da, eta hilabeteko epean emango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoko egunetik kontatzen hasita; hala balegokio, 8. oinarrian akatsak zuzentzeko ezarritako epea deskontatu beharko da. Erabakia jakinarazi egingo zaie eskatzaileei, haren aurka zein errekurso jar daitekeen zehaztuz.

10.3. Ebazteko gehienezko epea igaro eta artean ez bada berariazko ebazpenik eman, adituko da ezezkoa eman zaiola dirulaguntzari.

10.4. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beraren aurka, edo oinarri hauen aurka, aukeran izango da berraztertzeko errekurtsua aurkeztea ebazpena eman duen organoari berari; hilabete izango da horretarako, argitaratu edo jakinarazten denetik kontatzen hasita, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko zaio Gasteizko epaitegiari, ebazpen hau argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo bi hilabeteko epean.

11. Gehienezko kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa

11.1. Dirulaguntzak aurrekontu baliabideen arabera emango dira, zeintzuk hauek baitira deialdi honetan:

– Jaiak: 35.000 euro, Erriberabeitiko Udalaren 2016ko aurrekontu orokorreko 2016_338.434010 aplikazioaren kontura.

– Obrak: 80.000 euro, Erriberabeitiko Udalaren 2016ko aurrekontu orokorreko 2016_943.734010 aplikazioaren kontura.

– Zerbitzuak: 15.000 euro, Erriberabeitiko Udalaren 2016ko aurrekontu orokorreko 2016_943.434010 aplikazioaren kontura.

11.2 Gehienez ere, gastu justifikatuen ehuneko laurogei hamabost ordainduko da, deialdi honetako 6., 9. eta 12. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

12. Dirulaguntza ordaintzea eta gastuak justifikatzea

12.1 Dirulaguntzak aldi batean ordainduko dira, baldin gastuak justifikatzeari buruzko baldintza guztiak betetzen badira, edo, bestela, dirulaguntzaren ehuneko 60 arte aurreratuko da, eta, kasu horretan, dirulaguntzaren gainerako zatia kobratzeko, gastua justifikatu beharko da, behin deialdiaren ebazpena eman eta interesatuei jakinarazirik. Nolanahi ere, 9.1.c) oinarrian aipatzen den kasuan (eskaerak aurkezteko epearen barruan obraren aurrekontu adostua aurkeztea fakturaren ordeztu), ez da ordainketarik egingo, harik eta, behin obra amaitutakoan, entitate interesatuak egindako gastu osoaren faktura aurkeztu arte. Era berean, ez da dirulaguntzarik ordainduko, baldin eta erakundea zordun bada dirua itzuli beharra duela dioen ebazpenagatik.

12.2 Dagokion dirulaguntza ordainduko bazaio, erakundeak dagokion obra lizentzia eduki beharko du, eta, gainera, hala balegokio, lehen erabilerako lizentzia ere eduki beharko du, obra amaierako dokumentazioa eta kasuan-kasuan dagokion behin betiko likidazioa aurkeztu ondoren; guztia ere udal zerbitzu teknikoek ezarritako baldintzen arabera. Baldintza hori deialdia Udalak egiaztatuko du ofizioz.

12.3. Erriberabeitiko Udalak erakunde eskatzaileei jakinaraziko die eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu dien; 15 egun naturaleko epean jakinaraziko die, deialdiari buruzko ebazpena ematen denetik aurrera kontatuta. Behin dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazitakoan, onuradunak, 10 egun naturaleko epean, ez badio berariaz uko egiten, onartutzat joko da.

12.4. Onuradunak jarduera diruz lagunduaren aurrekontuaren ehuneko ehun justifikatu beharko du, eta ez Erriberabeitiko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta zehaztu beharko du zein gastu egozten zaizkion Udalari. Horretarako, 2016ko urtarrilaren 31 baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Gauzatutako gastuen zerrenda, zenbaki hurrenkerazkoa, bertan zehaztuz hartzekoduna, zenbatekoa, faktura eman zen data eta ordainketa, deialdi honetako II. eranskinaren arabera.

b) Eranskin horrekin batera, jatorrizko fakturak aurkeztuko dira, edo haien kopia konpultsatuak.

c) Ziurtapena, faktura horiek aurreikusitako helburua edo xedea gauzatzeagatik sortu zirela eta jatorrizkoak V. eranskinaren arabera eskuragarri daudela dioena.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Diruz lagundu ahal den gastuaren zenbatekoa urriaren 30eko 30/2007 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa bada, (50.000,00 euro obra kontratuetan eta 18.000.00 euro gainerakoetan), onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu baino lehen, salbu eta merkatuan, objektuaren ezaugarri bereziengatik, hura gauzatu, eman edo hornitzeko nahikoa erakunde ez dagoen kasuan, edo salbu eta gastua dirulaguntza eman aurretik egin den kasuan.

e) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea, III. eranskinaren konforme.

13. Dirulaguntza galtzea eta dirulaguntza itzuli beharra

Erakunde onuradunek itzuli egin beharko dituzte jasotako dirulaguntzak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 37. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzan xedatutakoaren arabera, kasu hauetan:

a) Dirulaguntza eskuratu izana ezarritako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza ezin ematea eragin izango zuketen baldintzak ezkutatu.

b) Ez betetzea, osorik edo partez, dirulaguntza funtsatu zuen xedea, jarduera edo proiektua, edo ez jokatzeko dirulaguntza funtsatu zuen jokabidearen arabera.

c) Ez betetzea justifikatzeko betebeharra, edo ez betetzea behar bezala, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 30. artikuluan eta oinarri hauek ezarritakoaren arabera.

d) Ez betetzea azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 18. artikuluen 4. idatz zatian jasotzen dituen zabalkunde neurriak hartzeko betebeharra.

e) Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 14. eta 16. artikuluetan aurreikusitako finantza egiaztapen eta kontroleko jardueren kontra egitea, edo jarduera horien kontra aitzakiak edo oztupoak jartzea edo haiei uko egitea, edo ez betetzea kontabilitate edo erregistro obligazioak, edo agiriak onik zaintzekoak, baldin eta horren ondorioz gertatzen bada ezin egiaztatzea jasotako funtsei emandako erabilera, ezin egiaztatzea ea bete den helburua edo ez, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta arauzkotasuna, edo izan denetza aldi berean beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabiderik helburu horretarako bererako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batek emanik, diren estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoetakoak.

f) Ez betetzea Erriberabeitiko Udalak erakunde laguntzaileei eta erakunde eta pertsona onuradunei ezarritako betebeharrak, edo ez betetzea erakunde horiek dirulaguntza dela-eta beren gain hartutako konpromisoak, honako hauen ingurukoak: helburu horiek nola bete behar diren, jarduera nola gauzatu behar den, proiektua nola gauzatu behar den edo jokabidea nola agertu behar den, horiek guztiak dirulaguntza emateko arrazoi izaki.

g) Ez betetzea Erriberabeitiko Udalak erakunde laguntzaile eta erakunde eta pertsona laguntzaileei ezarritako betebeharrak, edo ez betetzea erakunde horiek dirulaguntza dela-eta beren gain hartutako konpromisoak, aurrekoen bestekoak, baldin eta horren ondorioz gertatzen bada ezin egiaztatzea jasotako funtsei emandako erabilera, edo nola bete den helburua, edo diruz lagundutako jardueren errealitatea eta arauzkotasuna, edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana aldi berean helburu horretarako bererako, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emanik, diren estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoetakoak.

h) Europar Batasunaren Ituneko 87. artikulutik 89. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera, itzuli beharra dakarren erabakiren bat hartzen bada.

i) Oinarri hauetan, azaroaren 17ko 38/2003 Legean, dirulaguntzen orokorrean, eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 ED, uztailaren 21ekoa) aurreikusitako gainerako kasuak.

Erakunde edo pertsona onuradunak, edo, hala balegokio, erakunde laguntzaileak erabat edo ia erabat betetzen badute helburua, eta erakunde horiek egiaztatzen badute nabariki jardun direla konpromisoak betetzen, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioz determinatuko da itzuli beharreko zenbatekoa.

Halaber, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 19. artikulua 3. idatz zatian jasotzen duen kasuan, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainera aterata den soberakina itzuli beharko da, bai eta dagokion berandutze interesa ere.

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Erriberabeitiko Udalaren dirulaguntza deialdiaren oinarrietan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta haren Erregelamenduan araututakoari lotuko zaio.

14. Erakunde onuradunaren betebeharrak

14.1. Udalari aurkeztea diruz lagundutako kontzeptuen jarraipena egiteko eskatzen diren agiriak.

14.2. Erriberabeitiko Udaleko kontu-hartzailera orokorrak agiriak egiaztatzeko eta finantzak kontrolatzeko gauzatzen dituen jardunak igarotzea, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo eskumen hori duten beste organo batzuen gaineko legedian jasotakoak ere. 14.3. Ingurumen eta espazio publikoen administrazio zerbitzuari jakinaraztea diruz laguntzen diren gastuak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza edo baliabide batzuk ere eskuratu direla, 6.6. oinarrian ezarritakoaren arabera.

14.4. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatutak eta kontrolatuak izan daitezkeen neurrian.

14.5. Jasotako dirua itzuli behar izatea, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

14.6. Onuradunek beren jarduerari buruzko hedapen liburuxkak, kartelak edo herritarren eskura dagoen beste edozein euskarri erabiltzen badituzte, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte, dirulaguntzen udal ordenantzaren 6.3 artikulua 1) idatz zatian ezarritakoaren arabera. Era berean, dirulaguntzaren xedea jarduera ireki bat bada edo ekitaldi edo egintza publiko bat antolatzea, onuradunak bi hizkuntza ofizialak erabiliz egin beharko du hari buruzko hedapena.

15. Bestelako xedapen batzuk

Oinarri hauek arautzen ez duten guztirako, xedapen hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onartzen baitu Lege horren Erregelamendua; eta dirulaguntzen udal ordenantza orokorra, Udalbatzak uztailaren 14ko bilkuran onartua.

Rivabellosa, 2016ko urriaren 3a

Alkatea

PEIO RUIZ GARCIA